

Egon ala egin

Antton Izagirre

Ehun eta berrogeita hamar urte bete berriak dira Parisko Komuna eratu eta Parisen gobernu iraultzaile eta sozialista izan zenetik. Bi hilabete besterik iraun ez zuen hura, askoren ustez, langileen boterearen ezarpenaren praktika gogoangarri eta bakarrenetakoa izan zen.

Gertaera haren oroitzapenak, gaurko gure gizartean askotan bete-betean hartzen gaituen teoria eta praxiaren arteko dilemak harrapatuta nauka. Esango nuke gure artean badela kapitalismoa aukera bakartzat, ezinbesteko sistematzat hartzen duen giza multzo zabala. Guztia haren eraginpean izateaz gain ezinbestean

garapena posible egin lezakeen sistema ordezkaezin eta eraginkorra dela pentsatu eta haren nagusitasuna aldarrikatzen dutenak. Gehienez ere, kapitalismoak eragin ditzakeen zenbait desbideratze, ondorio, albo-kalte edo gauzatze desegokiren aurrean, kapitalismo gizatiarragoa, parte-hartzaileagoa edo berdintzaileagoa izateko makillatuko dutenak.

Beste multzo batean, kapitalismoa gure artean gertatzen diren zapalkuntza, bazterketa, mailaketa eta giza esplotazio guztien eragile nagusitzat hartuko dute-nak daude. Gizartean izaten diren kalte eta gainbehera guztien errua atxikitzen diotenak. Praktika oro haren morrontzan

irudikatzen dutenak. Garapena bera kapitalismoaren mesedetan ari den susmo-pean dutenak. Behetik gorako iraultzaz teorizatuko dutenak.

Bikoiztasun honetatik kanpo ez ote dago mundurik?

Ziur nago orain arteko garapenak sorturiko gizakion gainbehera ekonomiko, politiko, sozial, kultural eta ekologikoarekiko kritika abiapuntu ezin hobeia izan daitekeela oinarri desberdin batzuetatik gizakiaren ongizateari eta etorkizuneko garapenari heltzeko. Ziur aski etorkizun hori herri proiektu txiki, xume, kolektibo ugariren egitetik etorriko da eta inoiz ez determinismo hutsean egotetik. •

Zer eta ezizenez deitzeko!

Miren Azkarate
Badiola

Haur bat jaiotzen denean eginbe-harretako bat izena jartzea izaten da, eta a zer zeregina! Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula! Haur horrek, gero heldua izango denak, bere bizitzako egun guztietan berarekin eramango duen zerbait da. Bai, bai, orain aldatu daitezke izenak ere, eskerrak. Baina berez, gurasoek aukeratzen duten hori (gainera!), haur jaioberriaren izena alegia, sortzetik hil arte pertsonaren dokumentu ofizialetan aldatzen ez den gauza bakarrenetakoa dela esatera ausartuko nintzateke. Horrexegatik bere garrantzia.

Aurreko batean Espainiako irratia bat entzuten ari nintzela, irakasle batek kon-

tatzen zuen bere ikasgelan bazuela “Ilo-veny” izeneko haur bat. Bere amak ingelesezko “maite dut New York” idatzita zerraman kamiseta ikusi eta asko gustatu omen zitzaion. Eta istorio honek nik Palentziako espetxean ezagutu nuen haur polit hura ekarri zidan gogora, “Angelina-joli”, bai horrela, dena batera idatzita. Arazorik gabe Espainiako izen erregistroan sartutako izenak.

Gero EAEra gatozenean arazoak eta debekuak ditugu gure hurrei nahi bezala deitzeko: ezin diogu Zuhaitz neska bezala sailkatua izan berri den haur bati jarri, nahi baduzu Zuhaitza (zeinek eta guk, euskaldunok, gure hizkuntzan ez dagoe-

nean generorik). Eta nola ez ekarri lerro hauetara nire amaren kasua; ez zioten uzten nire anaiari Donibane izena jartzen, haurrari izen horrek «sentsibilitatea zaurituko» ziola argudiatuz. Sentitzen dut honi buruzko iruzkinik ez egitea, argudio horri zentzua hartu nahian bizi naiz. Garbi dagoen bakarra da epaitegiko langile hari ez zitzaizela izena batere gus-tatu, diot nik! Amak, noski, azkenean eta esfortzu eta bidaia asko egin ondoren, lortu zuen izen hura erregistratzea.

Utzi zailtasunak jartzeari, demontre, nahikoa erabaki zaila da-eta gurasoentza-ko izena aukeratzea, zuek are zailago bihurtzeko afera! •